

|            |                              |          |                    |
|------------|------------------------------|----------|--------------------|
| IKASTETXEA | 92) TOKI ONA BHI             |          | 92-1c-03           |
| IZENBURUA  | Trikua . Bolatxo arantzaduna | MAILA    | DBH 1              |
| IRAKASLEA  | Maite Arzuaga                | IKASGAIA | 03)Natur Zientziak |

DBHrako Irakurketaren Ulermenerako Hobekuntza Plana. **1. ATAZA TESTUA** Trikua . Bolatxo arantzaduna

larunbata, 2009ko urriaren 3a **berria**

# 6 mantangorri animalien erreinuan



## Trikua

# Bolatxo arantzaduna

Hanka motzak eta mutur txikia ditu, baina, bereziki, bizkarrean dituen arantzak dira trikuaren ezaugarri nagusia. Lozorroan igarotzen du negua, eta udaberrian jatera irteten da soroetara eta basoetara. Intsektuak eta zizareak jaten ditu, nagusiki

**1** Loaldia. Lotara sartzeko-  
tan egongo da trikua, ten-  
peratura 10 gradutik jaistean  
babesleku bila hasten baita, ha-  
rri artean edo zuhaitzen sus-  
traien azpian. Goroldioz eta be-  
larrez egiten ditu habiak. Azaro  
aldean gertatzen da hori. Bere  
baitan biltzen da, eta halaxe  
egoten da, udaberria iritsi arte.  
Arrak sartzen dira lehenengo;  
haien atzetik, emeak. Gaztetxo-  
ak dira habiara sartzen azkenak.



**2** Ezaugarriak. Animalia  
potokoa da trikua. Hanka  
motzak ditu eta mutur txikia.  
Bizkarraldean dituen arantzak  
dira trikuaren ezaugarri bereiz-  
garriena. 3 cm luzeko arantzak  
dira. Etsaietatik eta erasoetatik  
babesteko erabiltzen dituzte.



**3** Babesa. Inguruan harra-  
pariren bat sumatzen badu,  
bil-bil egina jartzen da, eta aran-  
tzez beteriko bola txiki baten  
itxura hartzen du; ez zaio hanka-  
rik, sudurrik eta begirik ikusten.  
Zuhaitzetik erori berri diren gaz-  
taina morkotsen itxura izaten  
dute orduan.



**Bolatxoak.** Etsairen bat  
inguruan dela sumatzen badute, bildu  
eta bolatxo arantzaduna bihurtzen dira.



**FITXA**

**Izena:** Triku arrunta.

**Izen zientifikoa:** *Erinaceus europaeus*.

**Tamaina:** Burua eta gorputza, 40 cm luze. Isatsa, 5 cm luze. Jaiotzean 9 cm luze da.

**Pisua:** Helduek 800 eta 1.500

**4 Etsaiak.** Arantzako pilota bihurtzen denean, harrapari gutxi mendera dezakete trikua. Hala ere, sugeek, azkonarrek eta ipurtatsek jaten dituzte triku gazteak. Txakurrak, otsoak, azeriak eta gaueko harrapariak dira, berriz, triku helduagoen etsai nagusiak.

**5 Gautxoria.** Nekez ikus daiteke egunez trikurik, gauez ibiltzen baita bereziki. Eguzkia ezkutatuta ostean irteten da ezkutalekutik, eta egunsentia baino lehen joaten da berriro lotara.

**6 Bizkorra.** Animalia txikia eta potokoa dela dirudi, baina azkar mugitzeko gai da, igerilari aparta da eta oso usaimen ona du.

grama artean pisatzen dute. Jaiotzean, hamabost gramo dira.

**Kume kopurua:** Umealdi bakoitzean, bi kumetik sei kume arte.

**Bizi-itxaropena:** Hamar urtez bizi daiteke gatibutasunean; aske, askoz ere gutxiago.

**7 Umealdia.** 35 eguneko umealdiaren ostean, 2-6 kume izaten triku amak. Udaberrian eta udan jaiotzen dira kumeak. Trikua itsua, gorra eta biluzik jaiotzen da. Egun gutxira arantza bigunak ateratzen zaizkio. Jaio eta bi astera zabaltzen ditu begiak. 11 egun bete arte ez da gai gorputza bildu eta bolatxo bihurtzeko. Hirugarren astetik aurrera, habiatik irteten hasten da.

**8 Elikagaia.** Hilabetez ematen dio esnea amak jaioberriari. Ondoren, denetarik jaten du: suge txikiak, hegaztien arrautzak, arratoiak, ugaztun txikiak, igelak, fruituak... Baina, bereziki, intsektuak eta lurreko zizareak jaten ditu.

**Bizilekua:** Europa osoan daude trikuak. Landare asko eta hezetasun handia dagoen eremuetan bizi dira.

**Elikagaia:** Intsektuak eta zizareak jaten ditu, nagusiki. Sugeak, hegaztien arrautzak, arratoiak, ugaztun txikiak eta fruta ere bai tarteka.

|            |                              |          |                    |
|------------|------------------------------|----------|--------------------|
| IKASTETXEA | 92) TOKI ONA BHI             |          |                    |
| IZENBURUA  | Trikua . Bolatxo arantzaduna | MAILA    | DBH 1              |
| IRAKASLEA  | Maite Arzuaga                | IKASGAIA | 03)Natur Zientziak |

| <b>JATORRIA</b>       |   |
|-----------------------|---|
| EGILEA                | Berria egunkaria  |
| IZENBURUA             | Trikua. Bolatxo arantzaduna   |
| ARGITALETXEA/Webgunea | Berria egunkariko eranskina: animalien erreinuan  |
| URTEA                 | 2009  |
| ORRIALDEA (K)         |   |
| ISBN                  |   |
| <b>TESTU-MOTA</b>     |   |
| OINARRIA              | Testu inprimatua edo paperean   |
| FORMATOA              | Testu jarraia   |
| MOTA                  | 13 / Azalpen testua   |
| ERABILERA             | Hezkuntzako testua da: Animalia baten ezaugarriak eta bizimodua ikasteko informazioa ematen da. |

## **ESTRATEGIAK**

### **IRAKURRI BAINO LEHEN**

#### **1.- Askotariko helburuekin irakurtzea**

Testu honen irakurketaren helburuak izanen lirateke:

- a.- Interesgarria den izaki bizidun bati buruz informazio orokorra eskuratzea
- b.- Animaliei buruzko informazioa gida zientifikoetan nola egituratzen den ezagutzea
- c.- Naturan dauden basa animalianganako errespetua eta zaletasuna sortzea
- e.- Ozenkiko irakurketa lantzea: intonazioa, irakurtzeko trebetasuna

#### **OHARRA**

Horretarako, honelako metodologia eramango dugu: ikasleei testua banatuko zaie A3 formatuan eta

|            |                              |          |                    |
|------------|------------------------------|----------|--------------------|
| IKASTETXEA | 92) TOKI ONA BHI             |          |                    |
| IZENBURUA  | Trikua . Bolatxo arantzaduna | MAILA    | DBH 1              |
| IRAKASLEA  | Maite Arzuaga                | IKASGAIA | 03)Natur Zientziak |

ahal bada koloretan, honela testu originalarekiko fidagarritasuna mantendu nahi da, ikasleek formatu ezberdinetara ohi daitezzen (Egunkari testua da: bere tamaina, koloreak, paper mota... ezaugarri bereizgarriak ditu) eta testua banatu eta gaisetik aztertzen den bitartean gogoratuko dira helburuak. Testu hau animalien erreinua unitatearen amaieran irakurriko da, beraz, banatu aitzin aipatuko dugu animalia xarmangarri bati buruz gehiago jakiteko asmoz testu polit baten irakurketa egingen dela.

## 2- Irakurri aurretiko hipotesiak egitea: izenburua, formatua eta ilustrazioak aintzat hartuz.

- Jatorriari buruzko hipotesia: arestian erran bezala, testua **egunkari** baten gehigarri batetik lortu da.
- Hartzaileari buruko hipotesia. Zeinentzat dago idatzia? Aurkezpena erakargarria da, argazki politak ditu, kolore bero/goxoak eta idazkeraren tamaina handia da.
- Egitura eta disposizio formalari buruzko hipotesia.

Testuan hiru zati bereiz daitezke:

1.- Lehen ikusten dena, ezker aldeko zati laranja: izenburua duena, testua hiru koloretan bereizia eta argazki handiena duena. Protagonistaren lehenengo aurkezpena izango da. Honetan hiru izenburu bereiz daitezke:

a.- “Animalien erreinuan” (hizki xeheaz idatzia eta lehena) kokatzen gaitu. Aurkezten diguten izaki biziduna animalia da.

b.- “Trikua” (hondoaren gainean kolore ilunarekin ongi bereiziz). Badakigu zein animalari buruz arituko garen.

d.- “Bolatxo arantzaduna” (kolore horia eta tamaina handitik txikienerako joera erakusten duena. Eta jarraian dagoen testuarekin erkatuz, tamaina txikiagokoa oraindik). Izenburu honek bakarrik aditzera ematen digu zein den aurkezten den animalia; hagitz ezaugarri bereizgarria aipatzen baitu.

e.- Izenburuen ondotik agertzen den testuan, letra txuri eta txikiak erabiliz, animalia honen aurkezpena egiten da: nolakoa den, nola eta non bizi den.

2.- Bigarren zatia, beheko aldeko fitxa izanen litzateke, hondo urdinez aurkeztua.

Biologiako gidetan animaliei buruz aurkituko ditugun fitxak bezalakoa da: datu zehatzak, labur idatziak eta idazkera tamaina txikienerakoa da. Informazio gehiegi ez dago agerian baina aise irakurtzen da.

|            |                              |          |                    |
|------------|------------------------------|----------|--------------------|
| IKASTETXEA | 92) TOKI ONA BHI             |          |                    |
| IZENBURUA  | Trikua . Bolatxo arantzaduna | MAILA    | DBH 1              |
| IRAKASLEA  | Maite Arzuaga                | IKASGAIA | 03)Natur Zientziak |

3.- Hirugarren zatiak informazio kopururik handiena ematen digu, eta azalera handiena hartzen duena da. Zati honek dituen berezitasunak dira:

\* zortzi ataletan banatua dago, zenbakituak eta bakoitza bere azpi izenburuarekin, adierazteko irakurriko dugun informazioa zeri dagokion.

\* atal honetako testuak zabaltzen du fitxan emandako informazio laburtua. Datu gehiago ditu baina erakargarriak dira eta idazkera tamaina handian idatziak daude.

\* zortzi ataltxo horiek, edozein ordenatan irakur daitezke, beraz, ikasleekin irakurketa prozesu irekia egiteko aukera ematen du,

### 3.- Era askotako aurretiko ezagutzak aktibatzea

- Erran bezala, animalien erreinuaren unitatea landu ondotik irakurriko da; beraz, animalien erreinuko talde nagusiak ikusiak ditugu (ornogabeak eta ornodunak, azken hauen barrenean ugaztunak eta euren ezaugarriak landuak daude).
- Izaki bizidun bakoitzaren funtzioa/nitxo ekologikoa ekosistema batean gogoraraziko edo aipatuko da. Erakutsi nahi da denok dugula eginkizunen bat eta denekiko errespetua bultzatu nahi da.
- Taxonomia zer den aipatuko da: izaki bizidunak izendatzeko modua. Nola eta nork sortu zuen aipatuko da eta erabiltzen den hizkuntza latina dela izen zientifikoa emateko; honela, izen arruntaz gain izen zientifikoa ezagutzeko irrika piztu nahi da.
- Azalpen testuaren ezagutzak gogoratzea: informazioa emateko testua, argitasuna, ordena eta zehaztasuna izan behar duena.

## IRAKURRI BITARTEAN

### 4- Nork bere buruari galderak egitea irakurtzen ari denaren gainean

- Ikasleek testua ozenki irakurriko dute txandaka, irakasleak agindutako ordenari jarraituz.
- Irakurketa zatika egingen da, hau da, arestian aipaturiko lehen zatia irakurriko da eta irakasleak galdetuko du hitz eta esaldi guztiak ulertu diren edota galderaren bat dagoen irakurritakoa ongi ulertzen laguntzeko. Ikasleren batek galdetzen badu, irakasleak erantzun baino lehen galdetuko du bertze ikasleren batek erantzuna ezagutu eta eman nahi duen. Hala ez bada,

|            |                              |          |                    |
|------------|------------------------------|----------|--------------------|
| IKASTETXEA | 92) TOKI ONA BHI             |          |                    |
| IZENBURUA  | Trikua . Bolatxo arantzaduna | MAILA    | DBH 1              |
| IRAKASLEA  | Maite Arzuaga                | IKASGAIA | 03)Natur Zientziak |

edota ikaslearen erantzun osatu behar bada, irakasleak egingen du.

#### 5.- Laburbiltze partzialak egitea

- Irakurritako zati bakoitzaren amaieran, zalantzak argitu ondoren, laburbiltze partziala egingen da. Horrelaxe:
  1. Loaldia: noiz eta nola egiten duten habia, noiz arte luzatzen den loaldia.
  2. Ezaugarriak: nolakoa den trikua, bere forma eta ezaugarri nagusia (arantzaduna izatea)
  3. Babesa: bola bihurtzearen arrazoiak eta izaten duten itxura.
  4. Etsaiak: triku gazteen eta helduen etsai arriskutsuenak.
  5. Gautxoria: gaua da animalia honek jarduteko aukeratzen duen aldia.
  6. Bizkorra: bere itxura gorabehera, piztia azkarra, igerilari trebea eta usaimen bikainekoa da.
  7. Umealdia: umealdiaren luzera, ume kopurua eta handitu bitartean hauek dituzten ezaugarriak.
  8. Elikagaiak: elikagai anitzekoak dira, orojaleak.

#### IRAKURRI ONDOREN

##### 6.- Inferentziak egitea

- Irakasleak aktibatu dezakeen inferentziaren bat izan daiteke fitxan pisua irakurtzerakoan konparazioen bat eskatzea: aipatu pisu bereko (kg 1 edo 1,5 kg inguruko) egunero erabiltzen dugun edota inguruan ohikoa dugun zerbait. Modu honetan irakurritako informazioa hobeki bereganatzen da.
- Loaldia irakurri ondoren galdetu egun horretako batez-bertzeko tenperatura zein den eta hausnartu trikurik ibiliko den ala ez zelaietan barna.

##### OHAR METODOLOGIKOA:

Irakaslea has daiteke azalpenen bat ematen eta ikasleen jarrera partehartzailea bada (DBH1ean hala izaten baita), txandaka solas egin dezakete. Jarduera hau nekagarria suerta daiteke denek batera solas egin nahi izaten dutelako eta zaila izaten da batzuek bertzeek errandakoari kasu egitea, baina denbora emanaz hezigarria da eta arauak finka daitezke (gerora ere jarraituko direnak).

##### 7.- Testu mota, berariazko testu-generoa eta berariazko egitura identifikatzeko estrategiak

Hautatutako testuaren balorazioa egingen da ikasleekin, kontuan izanik azalpena dela.

|            |                              |          |                    |
|------------|------------------------------|----------|--------------------|
| IKASTETXEA | 92) TOKI ONA BHI             |          |                    |
| IZENBURUA  | Trikua . Bolatxo arantzaduna | MAILA    | DBH 1              |
| IRAKASLEA  | Maite Arzuaga                | IKASGAIA | 03)Natur Zientziak |

Lehenengo irakurketa akitu ondoren, ikasleekin aztertuko da:

- a.-ldatzian erabilitako hiztegia egokia iruditu zaien (aisa, eramangarria, arrotza...).
- b.-ldazkeraren tamaina, koloreak gustukoak dituzten, erakargarriak suertatu zaizkien ala ez.
- d.- Argazkiak egokiak eta interesgarriak iruditu zaizkien.
- e.- Azalpen testua denez, emandako informazioaren egitura ulergarria, egokia iruditu zaien ala ez. Baita emandako informazioaren ordena, maila eta kantitatea ere egokiak iruditu zaizkien.
- f.- Hasieran aipaturako helburuak betetzen diren irakurketa honekin.